IRUTXULO 380 zk.
2002-11-15





# Kirikoeta Egia kultur etxean

Kirikoeta Teatroa "Zure aurpegia ikusi aurretik" antzezlana taularatzen ari da, hilaren 17a bitartean, Egia kultur etxean. Bakarne Jorge aktorea emanaldi handi baten bezperan lorik hartu ezin duen abeslariaren larruan ari da. Hilaren 15ean, ostirala, lana euskaraz emango da eta 16an eta 17an gaztelaniaz antzeztuko da. Emanaldiak 20.00etan hasiko dira.



## Bertso saioa Lugaritzen

Hilaren 16an, larunbata, bertso saioa egingo da Lugaritz kultur etxean. Andoni Egaña, Amets Arzallus, Unai Iturriaga eta Aitor Sarriegi bertsolariek jardungo dute. Gai jartzaile lanetan Saroi Jauregi ariko da. Saioa 22.30ean hasiko da.

## Ostirala 15

### Kontzertua

- Orchestra of the Age of Enlightenment-en emanaldia. Kursaal Auditorioan, 20.00etan.
- Sorkun eta Izaeraren kontzertua. Altza kultur etxean, 21.00etan.

### Antzerkia

- Kirikoeta Teatroaren "Zure aurpegia ikusi aurretik" antzezlana. Egia kultur etxean, 20.00etan.

## Larunbata 16

### Antzerkia

- Kirikoeta Teatroaren "Me esperan tus ojos" antzezlana. Egia kultur etxean, 20.00etan.

### Haur zinema

- Idsöe Vibeke zuzendariaren "Gorputz gudarosteak" filma. Lugaritz kultur etxean, 17.00etan.

### Zinema

- XX. Mendeko Klasikoak: William Wyler zuzendariaren "Ben Hur" filma. Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxean, 18.45ean.

### Kontzertua

- Antonio Reyesen flamenko emanaldia. Antiguako Kandela aretoan, 23.30ean.

### Bertso saioa

- Bertsolariak: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Aitor Sarriegi eta Unai Iturriaga. Gai jartzailea: Saroi Jauregi. Lugaritz kultur etxean, 22.30ean.

## Nosferatu euskaraz

Nosferatu programazioaren haritik, hilaren 20an, asteazkena, Antonio Margheriti zuzendariaren "Eta jainkoak esan zion Kaini" westerna emango da Antzoki Zaharrean. Klaus Kinski, Peter Carsten eta Antonio Cantafora dira filmaren aktore nagusiak. Filma jatorrizko hizkuntza bertsioan eskainiko da, euskaraz azpititulatuta. Emanaldia 20.15ean hasiko da.



## Josu Landa eta Fermin Muguruza sorkuntzaz

Josu Landa eta Fermin Muguruza Casares kultur etxean izango dira, hilaren 19an, asteartea. Idazleak eta musikariak sorkuntza izango dute hizpide. Gogoratu Landak "Odolbildua" eleberria kaleratu berri duela eta Muguruzak, berriz, "In-komunikazioa" diskoa. Solasaldia 19.30ean hasiko da.



